



2022-12-21eko Udalbatzarra

Pleno Municipal 21-12-2022

1. 2022ko azaroaren 28ko bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.

1. Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de 28 de noviembre de 2022.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.**

ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**2. Alkatetzaren ebazpenen kontu-
ematea.**

**2. Dación de cuentas de resoluciones
de Alcaldía.**

Udal Batzarra jakinaren gainean geratua.

El Pleno se da por enterado.

3. Eibarko EAJ-PNV udal-taldeak Gazteriaren Batzorde Aholkularian egin duen batzordekide-aldaketaren berri ematea.

3. Dación de cuentas de cambio de vocal del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV en la Comisión Asesora de Juventud.

EAJ-PNV udal-taldeak egin duen idatzi honen berri eman da:

Se da cuenta del siguiente escrito del Grupo municipal EAJ- PNV:

Eibarko EAJ-PNV udal-taldeak jakinarazten du Gazteriaren Batzorde Aholkularian ordezkarialdaketa egin duela eta Amaia Albizu Llubia andrea

El grupo municipal EAJ-PNV de Eibar comunica el siguiente cambio de representante en la Comisión Asesora de Juventud, en sustitución de Jon Perez



izango dela batzordekide Jon Perez Illana jaunaren ordez.

Illana será vocal Amaia Albizu Llubia.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

4. Alkatetzaren ebazenaren berri ematea: Kirolaren, Jarduera Fisikoaren eta Bizimodu Osasungariaren Batzorde Aholkularia sortzea.

4. Dación de cuentas de la Resolución de Alcaldía: creación de la Comisión Asesora de Deporte, Actividad Física y Vida Saludable.

ALKATETZAREN EBAZPENA

Alkatetzaren 2022ko abenduaren 15eko Ebazpenaren bidez, behin betiko bihurtu zen ordura arte behin-behinekoa zen Eibarko Udalaren Kirol Patronatua izeneko erakunde autonomoa desegiteko eta haren estatutu arautzaileak indargabetzeko erabakia, aurtengo abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin.

Akordio horren bigarren puntuau jasotzen denez, ordura arte erakunde autonomo horrek kudeatutako kirol-zerbitzuak eta -jarduerak sail sortu berri bati atxikiko zaizkio.

Udal-antolaketa ikusita, horrek behartzen du zerbitzu eta jarduera horiekin lotutako gaiak lehendik dagoen batzorde aholkulari bati esleitzera edo beste batzorde bat sortzera.

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

Mediante Resolución de Alcaldía, de 15 de diciembre de 2022, se elevó a definitivo el acuerdo, hasta entonces provisional, de disolución del Organismo Autónomo denominado Patronato Municipal de Deportes de Eibar, así como la derogación de sus Estatutos reguladores, con efectos del 31 de diciembre del presente año.

En el punto segundo de dicho acuerdo se recoge que los servicios y actividades deportivas hasta entonces gestionados por dicho Organismo Autónomo serán adscritos a un Departamento de nueva creación.

A la vista de la organización municipal, esta circunstancia obliga a la atribución de los asuntos relacionados con dichos servicios



y actividades a una Comisión Asesora ya existente o a la creación de una nueva.

Horren harira, Udalaren Erregelamendu Organikoaren 12. artikuluak halaxe dio:

En este sentido, el artículo 12 del Reglamento Orgánico Municipal prevé:

"Alkateak, bere ekimenez edo Tokiko Gobernu Batzarraren proposamenez, Batzorde Ahokulariak era ditzake herritarren partaidetzarekin, eta, zinegotziekin batera, berez Lan Batzordeenak bezala seinalatuta ez dauden gaiak eta 9. artikuluan jasota ez daudenak aztertuko dituzte.

Ahokularien eginkizuna izango da Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi behar dituen gaiak aztertzea.

"El Alcalde, a iniciativa propia o a propuesta de la Junta de Gobierno Local, podrá constituir Comisiones Asesoras, con participación ciudadana, que, junto con los Concejales, estudiará los temas de interés común que no estén señalados como propios de las Comisiones de Trabajo, y que no estén recogidos en el artículo 9.^º

Estas Comisiones Asesoras tendrán por función el tratamiento de los temas que han de ser resueltos por la Junta de Gobierno Local."

Gure herrian dauden kirol-instalazioen kopurua eta herriko klubek egiten duten lan garrantzitsua kontuan hartuta, egokitza jotzen dut Batzorde Ahokulari berri bat sortzea.

Teniendo en cuenta el número de instalaciones deportivas existentes y la importante labor que realizan los diferentes clubes de nuestra ciudad, considero adecuado la creación de una nueva Comisión Asesora.

Horren ondorioz,

En consecuencia,

EBAZTEN DUT

RESUELVO



LEHENA.- Kirolaren, Jarduera Fisikoaren eta Bizimodu Osasuntsuaren Batzorde Aholkularia sortzea.

BIGARRENA.- Batzorde Aholkulari horren presidentzia edo lehendakaritza Ander Curiel Ayuso seigarren alkateordearen esku uztea.

HIRUGARRENA.- Udalbatzari jakinaztea, egiten den lehenengo ohiko bilkuran.

PRIMERO.- Crear la Comisión Asesora de Deporte, Actividad Física y Vida Saludable.

SEGUNDO.- Delegar la presidencia de dicha Comisión Asesora en el Sexto Teniente de Alcalde, D. Ander Curiel Ayuso.

TERCERO.- Dar cuenta al Pleno Municipal en la primera reunión ordinaria que celebre.

Eibarren. 2022ko abenduaren 16an

En Eibar. 16 de diciembre de 2022

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuta.

El Pleno se da por enterado.

5. Eskola Kontseiluaren Batzarrerako udal-ordezkariak izendatzea.

5. Designación de representantes municipales en el Pleno del Consejo Escolar Municipal.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.**

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Alkatetza-Udalburutzaren idazkiaren berri eman da; idazki horretan, udal-taldeek Eibarko Udal Eskola-Kontseiluaren

Se da cuenta del escrito de la Alcaldía-Presidencia en el que los grupos municipales designan a sus



Batzarrean izango dituzten ordezkarien izenak daude jasota, Kontseiluaren Araudiaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horrenbestez, 2022ko abenduaren 14ko Erakunde, Lege eta Lurralde Gaietako Lan Batzordeak, Udalbatzari erabaki hau hartzeko proposamena egin dio:

representantes en el Pleno del Consejo Escolar Municipal de Eibar, de acuerdo a lo recogido en el Artículo 7 de su Reglamento.

En consecuencia, la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de 14 de diciembre de 2022, propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente:

ERABAKIA

BAKARRA.- Honako zinegotzi hauek izendatzea Eibarko Udalaren ordezkari Eskola Kontseiluaren Batzarrerako:

ACUERDO

ÚNICO.- Designar a las Sras. y Sres. Concejales siguientes como representantes municipales en el Pleno del Consejo Escolar Municipal de Eibar:

Eibarko PSE-EE

-Ander Curiel Ayuso
-ORDEZKOA: Patricia Arrizabalaga Larrañaga

PSE-EE de Eibar

-Ander Curiel Ayuso
-SUPLENTE: Patricia Arrizabalaga Larrañaga

Eibarko EAJ-PNV

- Amaia Albizu Llubia
-ORDEZKOA: Josu Mendicute Rodríguez

Eibarko EAJ-PNV

- Amaia Albizu Llubia
- SUPLENTE: Josu Mendicute Rodríguez

EH-Bildu Eibar

-Miren Baranguan Yarza
-ORDEZKOA: Gorka Errasti Bernedo

EH-Bildu Eibar

-Miren Baranguan Yarza
-SUPLENTE: Gorka Errasti Bernedo

Elkarrekin Podemos Eibar

-Isabel Fernández Pejenaute

Elkarrekin Podemos Eibar

-Isabel Fernández Pejenaute



6. Eibarko Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren esku uzten du Euskal Poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesu bateratuen kudeaketa-agindua.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

ABSTENTZIOAK: (0).

Legez, gehiengo osoa eskuratu duenez, onartu egin da.

Ikusita Eibarko Udalak egin duen kudeaketa-aginduaren proposamena, Euskal Poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesua Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren esku uztekoa.

Agindu edo mandatu hori onartzea eta formalizatzea Udalaren interesekotzat jotzen denez;

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari

6. Encomienda de gestión material del Ayuntamiento de Eibar a la Academia Vasca de Policía y Emergencias para la gestión de los procesos selectivos unificados de ingreso en la categoría de agente de la escala básica de Policía Vasca.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.**

VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS EN CONTRA: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

ABSTENCIONES: (0).

Alcanzada mayoría absoluta legal, queda aprobado.

Vista la propuesta de encomienda de gestión material del Ayuntamiento de Eibar a la Academia Vasca de Policía y Emergencias para la gestión de los procesos selectivos de ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de Policía Vasca.

Considerando de interés municipal la aprobación y formalización de dicha encomienda.

Considerando lo dispuesto en el artículo



buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen
11. artikuluak xedatzen duena aintzat
hartuta;

2022ko abenduaren 15eko Pertsonaleko
Lan-Batzordearen aldeko irizpena aintzat
hartuta, Udal Osoko bilkurak

11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del
Régimen Jurídico del Sector Público

Considerando el dictamen favorable de la
Comisión de Trabajo de Personal de 15 de
diciembre de 2022, el Pleno Municipal

ERABAKITZEN DU

Lehenengo.- Onartzea Eibarko Udalak
Polizia eta Larrialdietako Euskal
Akademiaren esku uzten duen kudeaketa
materialeko agindua, 2021eko lan-
eskaintzaren ondorioz Euskal Herriko
Poliziaren Oinarrizko Eskalako bi udaltzain
lanpostu betetzeko hautaketa-prozesuak
kudea hark kudea ditzan.

Bigarrena: Alkate-udalburu jaunari
baimena ematea agindu-dokumentua sina
dezan.

Hirugarrena: Aginduaren testua
Gipuzkoako Buletin Ofizialean ematea
argitara.

7. Titulazio-aldaketak Lanpostuen Zerrendan.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUAK.

ACUERDA

Primero.- Aprobar la encomienda de
gestión material del Ayuntamiento de
Eibar a la Academia Vasca de Policía y
Emergencias para la gestión de los
procesos selectivos de ingreso de dos
plazas de Agente de la Escala Básica de
Policía Vasca resultantes de la oferta de
empleo de 2021.

Segundo: Autorizar al señor Alcalde-
Presidente para la firma del documento de
encomienda.

Tercero: Disponer la publicación del texto
de encomienda en el Boletín Oficial de
Gipuzkoa.

7. Modificaciones de titulación en la Relación de Puestos de Trabajo.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADAS.**



ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Pertsonal eta Antolaketa Unitateko zuzendari andrearen 2022ko abenduaren 14ko txostenaren berri eman da, non adierazten duen Udal Lantaleko hainbat lanpostutan eskatutako titulazioari dagozkion aldaketak egin behar direla, bai eta Etxeko Lagunza Zerbitzuko administrari laguntzailearen eta Musika Eskolako administrariaren lanpostuetan ere.

Udal Lantaleko lanpostuen aldaketak Eusko Jaurlaritzak hala eskatuta egin ziren titulazio berrietara egokitzearen ondorio dira; ostera, Etxeko Lagunza Zerbitzuko administrari laguntzailearen eta Musika Eskolako administrari laguntzailearen lanpostuen aldaketa, kausitutako akatsak zuzentzeko beharraren ondorio da.

Kontuan hartuta, halaber, sindikatuekin negoziatu eta hala egitea adostu zela 2022ko abenduaren 12ko bileran.

2022ko abenduaren 15eko Pertsonaleko

Se da cuenta del informe emitido por la Directora de la Unidad de Personal y Organización de fecha 14 de diciembre de 2022 en el que expone que corresponde realizar modificaciones referidas a titulación exigida en diferentes puestos de la Brigada Municipal, así como en los puestos de Auxiliar administrativo del SAD y Administrativo de Musika Eskola.

Las modificaciones de los puestos de la Brigada Municipal son fruto de la adaptación a las nuevas titulaciones que se realizaron ante requerimiento del Gobierno Vasco; mientras que la modificación de los puestos de Auxiliar administrativo del SAD y administrativo de Musika Eskola se debe a la necesidad de corrección de errores detectados.

Teniendo en cuenta asimismo la existencia de negociación sindical acordada en reunión 12 de diciembre de 2022.

Considerando el dictamen favorable de la



Lan-Batzordearen aldeko irizpena aintzat hartuta, Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartzen du:

Comisión de Trabajo de Personal de 15 de diciembre de 2022, el Pleno Municipal adopta el siguiente

AKORDIOA

SARTZEA Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) titulazioa ondorengo lanpostuetan, eta, hortaz, lanpostu horien titulazioa izatea DBH, LH-1 edo titulazio baliokidea:

- **Mantentze-Lantaldea**
 - o 321 Pintorea
 - o 322 Pintorea
 - o 281 igeltseroa
 - o 282 igeltseroa
 - o 27 hondeamakina-gidaria
 - o 341 ofizial balioaniztuna
- **Etxeko Laguntza Zerbitzuan ere** DBH titulazioa sartzen da administrari laguntzailearen postuan (142. zenbakiko postua)
- **Musika Eskolan**, transkripzio-akatsa zuzentzen da (lan-kontratudun lanpostu gisa azaltzen zen) eta Musika Eskolako administrari lanpostua funtzionario gisa kalifikatzen da.

8. Indargabetzea Eibarko Udalaren zerbitzura dauden funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan-baldintzak

ACUERDO

INCLUIR la titulación de Educación Secundaria Obligatoria (ESO) en los siguientes puestos, quedando como titulación de los mismos ESO, FP-1 o equivalente:

- **Brigada de mantenimiento:**
 - o 321 Pintor/a
 - o 322 Pintor/a
 - o 281 albañil
 - o 282 albañil
 - o 27 maquinista excavadora
 - o 341 oficial polivalente
- En el Servicio de **Ayuda a Domicilio** también se incluye la titulación de ESO /DBH en el puesto 142 de administrari laguntzaile / auxiliar administrativo/a
- En **Musika Eskola** se corrige el error de transcripción como puesto de carácter laboral y se califica el puesto de administrativo de Musika Eskola como puesto de carácter funcionarial.

8. Derogación de los artículos 95 y 96 del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal



arautzen dituen Akordioaren (Udalhitz) 95. eta 96. artikuluak, "bai eta 2021-2022 Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana ere.

funcionario y laboral al servicio del Ayuntamiento de Eibar (Udalhitz) así como del Plan de Racionalización de Recursos Humanos 2021-2022.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 9 - PSE-EE (PSOE).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 12 - Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.**

VOTOS A FAVOR: 9 - PSE-EE (PSOE).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIOS: 12 - Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

2021eko ekainaren 28an egindako osoko bilkuran, Eibarko Udalaren 2021-2022 Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana onartu zen. Plan horren bidez, bai funtzionarioen lan-baldintzak bai Eibarko Udalaren zerbitzura dauden lan-kontratuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioren (Udalhitz) honako artikulu hauek aldatu ziren: 95.artikulua, "Borondatezko erretiroa adinagatik" eta 96. artikulua, "Erretiro aurreraturako primak"; plana 2021eko uztailaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (143. zk.) argitaratu zen.

Erretiro aurreratuagatiko primei dagokienez, eta funtzionarioen lan-baldintzak arautzen zituzten arau-xedapenak edo prima-mota horiei

En sesión plenaria celebrada el 28 de junio de 2021 se aprobó el Plan de Racionalización de Recursos Humanos 2021-2022 del Ayuntamiento de Eibar, en el que se modificaban los artículos 95 "Jubilación voluntaria por edad" y 96 "Primas para la jubilación anticipada", tanto del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario como del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal laboral al servicio del Ayuntamiento de Eibar (Udalhitz), y que fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 143, de 29 de julio de 2021.

En relación con las primas por jubilación anticipada, y siguiendo pronunciamientos anteriores que han anulado disposiciones normativas que regulaban las condiciones



erreferentzia egiten zieten manuak baliogabetu dituzten aurreko erabakiei jarraituz (besteak beste, 129/2010, 2747/2015, 2717/2016, 459/2018 eta 1183/2021 epaiak), Auzitegi Gorenak 344/2022 eta 421/2022 epaiak eman ditu, 2022ko martxoaren 16koa eta 2022ko apirilaren 5ekoa, hurrenez hurren. Epai horietan, Epaiketa Salak hauxe adierazi du argi eta garbi: “*toki-erakundeen akordioetan aurreikusitako aurretiazko erretiroagatiko haborokinak – edozein dela ere haien izena – ordainsari gisa hartuko dira, eta, beraz, soilik ulertuko da zuzenbidearekin bat datozaela baldin eta irismen orokorreko lege-arauren batean oinarritzen badira, toki-administrazioaren funtzionarioen ordainsariei buruzkoa*”. Hau da, lan-baldintzak arautzen dituzten akordioetan edo beste xedapen orokor batzuetan jasotako erretiro aurreratuagatiko prima guztiak, legezko indarrik ez badute, ez dira zuzenbidearen araberakoak.

1978ko abenduaren 27ko Spainiako Konstituzioaren 9.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.1.d) eta i) artikuluetan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko

de trabajo del personal funcionario, o los preceptos que hacían referencia a este tipo de primas (entre otras, Sentencias 129/2010, 2747/2015, 2717/2016, 459/2018 y 1183/2021), el Tribunal Supremo ha dictado las Sentencias 344/2022 y 421/2022, de 16 de marzo de 2022 y de 5 de abril de 2022, respectivamente, en las que la Sala de Enjuiciamiento entiende de forma clara y contundente que “*las gratificaciones - cualquiera que sea su denominación en cada caso- por jubilación anticipada previstas en acuerdos de entidades locales tienen naturaleza de retribución y, por consiguiente, sólo pueden considerarse ajustadas a Derecho en la medida en que tengan fundamento en alguna norma legal de alcance general, relativa a la remuneración de los funcionarios de la Administración local*”. Es decir, todas aquellas primas por jubilación anticipada recogidas en acuerdos reguladores de condiciones de trabajo u otras disposiciones generales, que carezcan de fuerza legal, no son ajustadas a derecho.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 9.3 de la Constitución Española, de 27 de diciembre de 1978, así como en el artículo 22.1.d) e i) de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local, artículos 33, 37 y 38 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de



5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 33., 37. eta 38. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta aipatutako jurisprudentzia ikusita;

Negoziazio Mahai Orokorra osatzen duten ordezkari sindikalekiko aurretiazko negoziazio-izapidea beteta, eta legezkotasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioetan oinarrituz;

Ikusirk Antolaketa eta Pertsonaleko zuzendari andreak, kontu-hartziale jaunak eta idazkari jaunak, denak batera, 2022ko abenduaren 1ean egindako txostena.

2022ko abenduaren 15eko Pertsonaleko Lan-Batzordearen aldeko irizpena aintzat hartuta, Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartzen du:

AKORDIOA

LEHENA.- Legezkotasun-printzipioa zorrotz aplikatuz eta erretiro aurreraturako pizgarriei buruz Auzitegi Gorenak emandako jurisprudentziarekin bat etorri, indargabetzea bai funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren, bai Eibarko Udalaren zerbitzura dauden lan-kontratuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioren (Udalhitz) 95.artikulua, "Borondatezko erretiroa adinagatik", eta 96. artikulua, "Erretiro aurreraturako primak", bai eta 2021-2022

octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, y a la vista de la jurisprudencia indicada.

Cumplido el trámite de negociación previa con los representantes sindicales integrantes de la Mesa General de Negociación, y en base a los principios de legalidad y seguridad jurídica.

Visto el informe conjunto de la Sra. Directora de Organización y Personal, del Sr. Interventor y del Sr. Secretario, de 1 de diciembre de 2022.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Personal de 15 de diciembre de 2022, el Pleno Municipal adopta el siguiente

ACUERDO

PRIMERO.- Derogar los artículos 95 "Jubilación voluntaria por edad" y 96 "Primas para la jubilación anticipada", tanto del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario como del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal laboral al servicio del Ayuntamiento de Eibar (Udalhitz), así como el Plan de Racionalización de Recursos Humanos 2021-2022, en estricta aplicación del principio de legalidad y de conformidad con la jurisprudencia del Tribunal Supremo



Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana ere.

en relación a los incentivos a la jubilación anticipada.

BIGARRENA.- Akordio hau Eibarko Udaleko Negoziazio Mahai Orokorreko kide diren sindikatuei jakinaraztea.

SEGUNDO.- Notificar el presente acuerdo a las centrales sindicales integrantes de la Mesa General de Negociación del Ayuntamiento de Eibar.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Euskal Autonomia Erkidegoko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistrora eta gordailura bidaltzea, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

TERCERO.- Remitir el presente acuerdo al Registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos del País Vasco, y proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean; beraz, ondorioak ere egun horretatik aurrera izango ditu.

CUARTO.- El presente acuerdo entrará en vigor, y, por tanto, producirá efectos, a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

9. Eibarko EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztu duen mozioa, eremu publikoan zuhaitzak landatzeari eta zaintzeari buruz.

9. Moción presentada por el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV sobre la plantación y cuidado de árboles en espacio público.

GAI-ZERRENDAN SARTZEA

A) PSE-EE(PSOE) udal taldeak Eibarko EAJ-PNV erregistratutakoaren Mozioari aurkeztutako erdibideko mozioa

INCLUSIÓN EN EL ORDEN DEL DÍA

A) Moción ALTERNATIVA del grupo municipal PSE-EE (PSOE) y Eibarko EAJ-PNV a la registrada por EAJ-PNV.



Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorri, 138 artikuluarekin lotua, eta A) atala presakoa dela adierazi eta aho batez berretsi ondoren, honako gai hauek eztabaidatuko dira:

9. Eibarko EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztu duen mozioa, eremu publikoan zuhaitzak landatzeari eta zaintzeari buruz.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 12 - Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 9 - PSE-EE (PSOE).

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkezten du, Udal Batzarraren Osoko Bilkurak eztabaidatu eta bozkatu dezan, espazio publikoan zuhaitzak landatzeari eta zaintzeari buruz.

ARRAZOIAK

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 en relación con el artículo 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y previa declaración de urgencia del apartado A), ratificada por unanimidad, se pasan a tratar los siguientes asuntos:

9. Moción presentada por el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV sobre la plantación y cuidado de árboles en espacio público.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.**

VOTOS A FAVOR: 12 - Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 9 - PSE-EE (PSOE).

El grupo municipal EAJ-PNV de Eibar presenta, para su debate y votación por el Pleno de la Corporación, la siguiente moción sobre la plantación y la custodia del arbolado en el espacio público.

MOTIVOS



Zuhaitzek ezinbesteko funtzioa betetzen dute hiriguneetan: beroketa efektuaren aurrean, ingurua hozten laguntzen dute, karbono dioxidoa xurgatu eta airea garbitzen dute, zarata gutxitzen dute eta basa-bizitza ahalbidetzen dute. Zuhaitzek eragina dute, baita ere, hirien erakargarritasunean, espazio publikoen bizigarritasunean eta biztanleen osasun psikologikoan eta ongizatean. Hiriguneetan zuhaitzak landatzea funtsezko estrategiatzat jotzen da aldaketa klimatikoari aurre egiteko.

Hori horrela, landa-eremuko ekintzez gain, Eibarko Udalak 2022ko aurrekontuan aurreikusi zuen aurtengo ekitaldian zuhaitz kopurua areagotzeko plan bat idaztea eta gauzatzea. Plan horren jatorrizko helburua zen 2022an bertan 100 zuhaitz landatzea Eibarko kaleetan.

Zorionez gizarte sentsibilizatua da Eibarkoa: zuhaitz bat hirigunetik kentzeko erabakiek gero eta erantzun sendoagoa dute herriaren aldetik. Eibartarrek hiri berdeagoa nahi dute. Hori dela eta, hirigunean espazio artifizializatuak naturalizatzeko bidea hartu beharra dago, eta ez alderantziz. Dauzkagun

Los árboles cumplen un papel esencial en las áreas urbanas: ante el calentamiento global, ayudan a enfriar el entorno, absorben el dióxido de carbono y limpian el aire, reducen el ruido y posibilitan la vida salvaje o silvestre. Los árboles influyen también en el atractivo de las ciudades, en la habitabilidad de los espacios públicos y en la salud psicológica y el bienestar de la población. La plantación de árboles en zonas urbanas está considerada como una estrategia fundamental para hacer frente al cambio climático.

En ese sentido, además de las actuaciones en el ámbito rural, el Ayuntamiento de Eibar previó su presupuesto del año 2022 la redacción y la ejecución de un plan para aumentar el número de árboles en el presente ejercicio. El objetivo original de este plan era la plantación de 100 árboles en las calles de Eibar en este mismo año 2022.

Afortunadamente, la sociedad de Eibar es una sociedad sensibilizada: las decisiones de retirada de un árbol del centro urbano cada vez tienen una mayor respuesta por parte de la ciudadanía. Los eibarreses y las eibarresas quieren una ciudad más verde. Por dicha razón, en el casco urbano hay que adoptar la vía de naturalizar los espacios artificializados y no al revés.



berdeguneak babestu, zaindu, eta berriak gehitu beharra daukagu.

Bide horretan, azken urteotan areagotu egin dira zuhaitzak mozteagatik jasotako kexak. Eibarrek etorkizunean zuhitz gehiago izan ditzan erabateko konpromisoa erakustea beharrezkoa da. Horregatik guztiagatik, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkezten dio Udalatzari. Eibarko EAJ-PNV udal taldea.

Eibarko EAJ-PNV. Untzaga, 1. 20600
Eibar (Gipuzkoa). TLF: 943 70 84 30.
pnv@eibar.eus

MOZIOA

Eibarko Udal Batzarrak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari bete eta betearaz ditzala ondorengo akordio hauek:

1.- 3 m zabal edo zabalagoak diren espaloi guztiekin, edonola ere, eta baita zeharkako aparkalekuekin, zuhaitzak izan behar dituzte. Zuhaitzen arteko gehieneko tarteak, lerrokatutik dauden kasu guztietaan, 6 m-koia izango da.

Tenemos que proteger las zonas verdes que tenemos, cuidarlas y añadir nuevos espacios verdes.

En este sentido, en los últimos años se han intensificado las quejas recibidas por la tala de árboles. Es necesario mostrar el compromiso absoluto de que Eibar tenga más árboles en el futuro. Por todo ello, el grupo municipal EAJ-PNV de Eibar presenta al Pleno la siguiente moción:
Grupo municipal Eibarko EAJ-PNV

Eibarko EAJ-PNV. Untzaga, 1. 20600
Eibar (Gipuzkoa). Telefonoa: 943 70 84
30. pnv@eibar.eus

MOCIÓN:

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta al gobierno municipal a cumplir y hacer cumplir los siguientes acuerdos:

1.- Todas las aceras de anchura igual o superior a 3 m, así como los aparcamientos en batería, deberán estar arboladas. La separación máxima entre árboles, en todos los casos en los que se encuentren alineados, será de 6 m.



2.- Espazio publikoan dagoen zuhaiztia, nahiz eta berdegune edo ingurumen zaintzako espazio libre moduan kalifikatua izan ez, babestu eta zaindu egin beharko da.

3.- Bide publikoan galtzen den zuhaitz ororen ordez beste bat ipini beharko da berehala.

4.- Bide publikoan dauden zuhaitzak ordezkatzeko, lehendik zeuden aleak hondatu edo bestela galdu direnean, desagertutakoak bezalako espezieak eta itxura berekoak ipiniko dira, edota espezie nagusia erabiliko da.

2.- El arbolado existente en el espacio público, aunque no esté calificado como zona verde o espacio libre de protección ambiental, deberá ser protegido y conservado.

3.- Todo árbol que se pierda en la vía pública deberá ser inmediatamente restituido por otro.

4.- Para la sustitución de los árboles existentes en la vía pública, por el deterioro o pérdida de los ejemplares existentes por alguna otra causa, se plantarán especies idénticas a las desaparecidas y del mismo porte, o se utilizará la especie principal.

A) PSE-EE(PSOE) udal taldeak Eibarko EAJ-PNV erregistratutakoaren Mozioari aurkeztutako erdibideko mozioa

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

A) Moción ALTERNATIVA del grupo municipal PSE-EE (PSOE) y Eibarko EAJ-PNV a la registrada por EAJ-PNV.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.**

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).



Eibarko Udaleko PSE-EE (PSOE) udal-taldeak honako mozio alternativo hau aurkezten du, Udalbatzak eztabaidatu eta onar dezan, EAJ-PNV udal-taldeak espazio publikoetan zuhaitzak landatu eta zaintzeari buruz aurkeztutakoaren aurrean.

Eibarko Udaleko Ingurumen Sailak 2022-2030erako Eibarko Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana (KEJEP) prestatu du, eta oposizioko taldeei aurkeztu zaie, ekarpenak eta iradokizunak egin ditzaten. Aurreikusita dago dokumentu hori 2022a amaitu baino lehen Osoko Bilkurak onartzea.

Eibarko Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana klima-aldaera eta haren egokitzapena modu integralean lantzen duen plan bat da, arlo horretako Europako eta Estatuko politikekin bat datorrena, eta Klimarako eta Energiarako Alkabetzen Itunaren eskakizunei erantzuten diena.

Bere ekintzen artean, KEJEP Plangintzak honako neurri eta jarduketak jasotzen ditu:

- Udalerriko azpiegitura berdea definitzea, hura kontserbatzeko

El grupo municipal del PSE-EE (PSOE) del Ayuntamiento de Eibar presenta, para su debate y aprobación por el Pleno Municipal, la siguiente moción, ALTERNATIVA a la presentada por el grupo municipal EIBARKO EAJ-PNV sobre plantación y cuidado de árboles en espacio público.

El área de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Eibar ha elaborado el Plan de Acción para el Clima y la Energía Sostenible (PACES) de EIBAR 2022-2030, que ha sido expuesto a los grupos de la oposición para que realicen aportaciones y sugerencias, estando previsto que este documento sea sometido a aprobación por el Pleno antes de que finalice el año 2022.

El Plan de Acción para el Clima y la Energía Sostenible de Eibar, es un plan que aborda de forma integral la mitigación y la adaptación al cambio climático, se encuentra alineado con las políticas europeas y estatales en la materia y responde a los requerimientos del Pacto de las Alcaldías para el Clima y la Energía.

Entre sus acciones, el PACES contempla las siguientes medidas y actuaciones:

- Definir la infraestructura verde del municipio, planificar acciones para



ekintzak planifikatzea eta mantentzeko funtsak bideratzea.

- Udalerriko plaza eta egonlekuak naturaltzea
- Udalerriko oinezkoen ibilbide nagusiak naturaltza
- Udalerriko orubeak eta alfer-lurrak berdetzea.
- Lorazaintzako jarduerak (mantentza, espezieak landatzea, eta abar) testuinguru klimatiko berrira egokitzea.

Gainera, egokitzapen-irizpideak jasotzen ditu, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren berrikuspenari dagokionez.

Aurrekoa ikusita, honako hau proposatzen dugu:

MOZIOA

Eibarko Udalak ondorengo akordio hau hartzen du: gure herriko kaleak eta plazak berdetu eta naturaltzeko bidean aurrera egiteko helburuarekin KEJEP plangintzan jasotako ekintzak eta neurriak betetzea eta betearaztea.

10. Elkarrekin Podemos taldeak aurkeztu duen mozioa zuntz optikoari buruz.

Elkarrekin Podemos udal-taldearen bozeramaileak, **Fernández Pejenaute andreak**, berak aurkeztutako mozioa

su conservación y destinar fondos para su mantenimiento

- Naturalizar plazas y espacios estanciales del municipio
- Naturalizar los principales itinerarios peatonales del municipio
- Reverdecer solares y espacios baldíos del municipio
- Adaptar las prácticas de jardinería (mantenimiento, plantación de especies, etc.) al nuevo contexto climático.

Incluye además, la incorporación de criterios de adaptación en la revisión del Plan General de Ordenación Urbana.

A la vista de lo anterior, proponemos la siguiente

MOCIÓN

El Ayuntamiento de Eibar acuerda cumplir y hacer cumplir las acciones contempladas en el PACES que tienen por objetivo el avanzar en el reverdecimiento y la naturalización de las calles y plazas de nuestra ciudad.

10. Moción presentada por el grupo Elkarrekin Podemos sobre fibra óptica.

La Portavoz del Grupo Elkarrekin Podemos, **Sra. Fernández Pejenaute**, anuncia la retirada de la moción



erretiratu egin duela iragarri du, EH Bildu taldearekin testu berri bat adostu bai.

GAI-ZERRENDAN SARTZEA

Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, 138 artikuluarekin lotua, eta A) atala presakoa dela adierazi eta aho batez berretsi ondoren, honako gai hauek eztabaidatuko dira:

Elkarrekin Podemosen - IU Ezker Anitza – Equo Berdeak Eibar eta Eibarko EH Bilduren arteko erdibideko mozioa, Elkarrekin Podemosek - IU Ezker Anitza – Equo Berdeak Ebar koalizioak zuntz optikoa instalatzeko aurkeztutako mozioaren aurrean.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 12 - Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

presentada, al haber sido transacionado un nuevo texto con el Grupo EH Bildu.

INCLUSIÓN EN EL ORDEN DEL DÍA

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 en relación con el artículo 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y previa declaración de urgencia ratificada por unanimidad, se pasa a tratar el siguiente asunto:

Moción transaccional entre la coalición Elkarrekin Podemos - IU Ezker Anitza – Equo Berdeak Eibar y Eibarko EH Bildu ante la moción para la instalación de fibra óptica presentada por la coalición Elkarrekin Podemos - IU Ezker Anitza – Equo Berdeak Ebar:

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 12 - Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).



KONTRAKO BOTOAK: 9 - PSE-EE
(PSOE).

ABSTENTZIOAK: (0).

VOTOS EN CONTRA: 9 - PSE-EE
(PSOE).

ABSTENCIONES: (0).

MOZIOA

1. Eibarren espaloia edo galtzadak jasotzea dakarten obra guztietan, aprobetxa dadila beharrezko den material guztia (hodiak, kableak, etab.) jartzeko, etorkizunean zuntz optikoa instalatzeko. Horrela, ez litzateke beharrezkoia izango espaloi edo galtzada horiek berriro jasotzea zuntz optikoa instalatzeko, hala erabakitzen denean, horrek udal-kutxari dakarkion aurrezpenarekin.

2. Era berean, eta hemendik gertu ditugun Udalen adibideari jarraituz (Oñati edo Zumaia, esaterako), Eibarko Udal Osoko bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio martxan ipini dezala zuntz optikoko udal-sistema erabat publikoa, herritarrei eskaintzeko.

MOCIÓN

1. En toda obra que se lleve a cabo en la ciudad de Eibar que implique el levantamiento de aceras o de calzadas, se aproveche para instalar todo el material (tuberías, cableado, etc) necesario para la posible instalación futura de fibra óptica. De esta manera, no sería necesario volver a levantar esas aceras o calzadas de nuevo para llevar a cabo la instalación de fibra óptica cuando así se decida, con el consiguiente ahorro a las arcas municipales.

2. Asimismo, y siguiendo el ejemplo de Ayuntamientos cercanos como Oñati o Zumaia, el Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta al equipo de Gobierno a poner en marcha un sistema de fibra óptica municipal y totalmente público para ofrecerselo a su ciudadanía.

11. Galderak eta erreguak.

11. Ruegos y Preguntas.